

Covid19 Laguntzak Lezoko Udala

OSTALARITZA eta JATETXE ESTABLEZIMENDU nahiz ZERBITZUENTZAT LAGUNTZAK, COVID-19AREN EUSTE ETA HEDAPEN NEURRI BEREZIENGATIK KALTETUAK IZAN DIRENAK.



Onuradunak

Euren kontura lan egiten duten pertsonak edo autonomoak, eta 10 langile baino gutxiago lanean dituzten enpresa txikiak, edozein forma juridikorekin, urteko negozio bolumena ez bada milioi batekoa baino handiagoa eta, gainera, beren jardura ostalaritzaren eta jatetxeen sektorean garatzen badute.

Baldintzak

- Jarduera ostalaritzaren eta jatetxeen sektorean garatzea.
- Lezoko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan, kaltetutako epigrafeetan, 2020ko azaroaren 6a baino lehen alta emanda egotea. (Udalak egiaztatuko du)
- Egunean izatea Lezoko Udalarekin eta beste administrazioekin (Ogasuna eta Gizarte Segurantzza) zerga alorrekoak nahiz zergaz kanpoko betebeharren ordainketa. (Udalak egiaztatuko du).
- Ez izatea Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.artikuluko 2. eta 3. ataletan jasotako debekurik.
- Itxialdia bukatzen denean haien lan jarduerari berrekitea edo eustea eta jardueran alta emanda egotea, gutxienez lau hilabeteko epean berrekiten dionetik zenbatuta.



Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- **I. ERANSKINA.** Dirulaguntzaren eskabide normalizatua.
- Eskaera ordezkari batek egin badu, ordezkaritza baimena aurkeztu beharko du (ahalordeak pertsona juridikoen, sozietate zibilen, ondasun komunitateen edo nortasun juridiko propiorik ez duten bestelako entitateen kasuan).
- **II. ERANSKINA.** Eskaera hirugarrenak aurkezten badu, laguntza eskatu nahi duen pertsonak/enpresak baimen-agiria egin beharko du eta hori aurkeztuko da.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ziurtagiri historikoa.
- **III. ERANSKINA.** Erantzukizuneko adierazpena, interesdunak edo ordezkariak sinatua, ereduaren arabera.

Eskaera egiteko moduak

Lezoko Udalera bidali beharko dira bere erregistro elektronikoaren bidez. Udaleko erregistroan bertan: Eskaera elektronikoki aurkezteko bitartekorik edo gaitasunik izan ezean.

Laguntza eskatzen duen pertsona/enpresa edo haren ordezkaria ez den beste hirugarren batek aurkezten badu eskaera, laguntza eskatzen duen pertsona/enpresaren baimena izan beharko da. **II. ERANSKINA**

Kontsultak

Oarsoaldea Garapen Agentziarekin harremanetan jarriaz web gune honen bidez eta bertan azaltzen den inprimakia betez:

www.covid19oarsoaldea.com

Edo telefono zenbaki honetara deituaz:

943 494 129